

# noaua

Istripu larria  
N-634 errepidean

Etorri bezala joan zen  
azken elurtea

Soinurbil, musikaren  
Aste Nagusia



**Ainhoa Elgezabal eta Beñat Atxega, TSST enpresako gidariak**

**“Garraio publikoa sustatu nahi bada, dauden zerbitzuak indartu beharko dira eta ez murriztu”**



*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*

Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31



**S**SAGARDOTEGIA



943 373 613

**IRTEERA IRAILEAN**  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

# Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2017 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2017ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# 2017



**683-723 zenbakiak**

## Albiste iruditzen

# Oinezkoak, espazio publikoaren antolamendu berriko ardatz

2016ko udazkenean zehar, "Kale Irekiak" prozesuaren baitan Udalak eta herritarrek eginiko lanketaren emaitza aurkeztu zuten otsailaren 28an Potxoenean; etorkizuneko Usurbilgo espazio publikoaren antolamendu berria. Oinezkoak izango ditu ardatz. Oinezkoen beharregan pentsatuta diseinatu du herri honek, hurrengo urteetarako mugikortasun eredu berria. Oinezko guztientzat kale seguruak eta irisgarriak izatea bermatu nahi da. Usurbil jasagarria, irisgarri eta bizigarria sustatzea du xede antolamendu berri honek. Guztira 50etik gora aktuzio aurreikusten dira. Guztion artean, interes publiko handieneko ekintzak lehenetsi nahi ditu Udalak. Hurrengo urteetan Udalak garatuko duen planeamendua, martxoaren 16ra arte ikusgai izango duzue Sutegiko aretoko erakusleihoan jarri dituzten paneletan. Informazio gehiago, usurbil.eus atarian.



"Kale Irekiak" prozesuaren baitan Udalak eta herritarrek eginiko lanketaren emaitza aurkeztu zuten otsailaren 28an Potxoenean.

## Laburrean

### Oporraldiaren aurreko azken NOAUA! martxoaren 23an plazaratuko dugu

Udaberriko oporrak tarteko, martxoaren 30ean eta apirilaren 6an ez da NOAUA!rik izango. Opor aurreko azken astekaria, hilaren 23an argitaratuko dugu

honenbestez.

Zorion agur edo oharrik izanez gero, NOAUA!ra helarazteko martxoaren 19ra arteko epea izango duzue.

Bideak, ohikoak:

Egoitzara etorri, [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera idatzi edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!





Imanol Ubeda

## Otsailaren 28an, goizez

**E**ta bat-batean, dena zuritu du elurrak. Eta beste behin ere, txundigarria iruditu zaizu elurrak eragiten duen akustika. Supra zein infra soinuen zaratak xurgatuz, espazioa intsonorizatu duela dirudi. Mendiko botak jantzi, hipodromoko zubitik abiatu eta Zubieta aldera jo duzu. Autorik ez, txirrindularirik ez, oinezkorik ere ez. Txoriak dira soinu banda nagusi. Udaberriari deika, ziurrenik.

Zurituta dagoen bide gorritik barrena, Lanbide Eskolako ikasleekin egin duzu topo. “Bertan behera utzi dituzte eskolak eta etxera goaz”. Lasarte-Oria aldera doaz oinez sei bat gazte.

Zubietako errebote plazan, gizonezko bat eta emakumezko bat argazkiak atera-

tzen. Egia esan, irudi bidez betikotzeko moduan dago. Eskola Txikiaren kanpoan, bi ama eta hezitzaile bat solasean. Lasartekoa da irakaslea eta, badaezpada, oinez hurbildu da eskolara. Eskola barruraino sartzen utzi eta argazki gehiago atera ditugu. Santuenerako bidean, Lurdes Huetarekin eta bere txakurtxoarekin egin dugu topo. “Hemen gabiltza, buelta bat ematen eta argazkiak ateratzen”. Oso ondo, Lurdes, akaso baten bat eskatuko dizugu. Txakurra aztoratu samar dago. “Hau erotuta dabil, batetik bestera!”. Elurretan pozik.

Santuenera bidean, Artzabaleta baserria atzean utzi berrikan, bi auto geldi. Bide bazterrean sartu da kotxe bat eta ezin atera geratu da. Bultzaka ateratzen saiatu gara hiruzpau lagunen artean. Baina ezin.

Konturatu orduko, auto gehiago joan dira pilatzen. “Sentitzen dut”, esan du laguntzera geratu den gidarietako batek. “Baina besteok mugitu egin beharko dugu. Bestela, denak geratuko gara harrapatutik”. Bazterreko autoko gaztea bertan geratu da, zain, autoa zulotik atera ezinik. Gainontzekoek aurrera egin dute.

Santuenerako zubian, ibiltari ugari topatu ditugu. Baita eskiatzaile batzuk ere. Bitxia irudia: eskiak eskuetan, Santuenerako zubiaren aldamenear. Txokoalderako bidera hurbildu nahi dute, iraupen eskia egitera.

Bizkarreko parkearen magalean, Atallu kalean, neska gazte bat, autoa aparkatu berrikan. Nondik zatoz? “Hernanitik”. Ondo al daude errepideak? “Ozta-ozta iritsi naiz. Hemen-

dik oinez igoko naiz Sanatorioraino. Bertan egiten dut lan eta autoarekin ez naiz goraino igotzera ausartzen”.

Zalaparta ugari dago Bizkarreko parkean. Haurrak eta gurasoak jolasean. Baita Artzabalen ere. Eta zalapartaren erdian, flash moduko bat. Elurrarengatik izan ote da, edo Artzabal izenak ekarritako oihartzunarengatik akaso. Joxan Artze etorri zait burura. Bulegoan sartu, liburuetara jo eta elurraz, zuritasunaz eta xuritasunaz dituen olerkietan pausatu dut gogoan:

*Elurraren zuri huts horretan dena idatzirik dago, hizkirik gabe idatzirik; dena esanik, hitzik gabe esanik, aspaldidanik, mundua mundu denetik...*

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Euskal presoan eskubideen aldeko martxoko elkarretaratzea astebete lehenago egingo da

Hilabete amaierako oporraldi eta jai egunak tarteko, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik berri eman dutenez, astebete aurreratu dute martxoko euskal presoan eskubideen aldeko elkarretaratzea; hilaren 23ra. Mobilizazio honekin batera, harpidetza afaria antolatu dute Aitzagan. “Dispertsio politikaren ondorioz, euskal presoek informazio eskubidea ere urratu dute eta ezin dute Euskal Herriko informazioa nahiko luketen bezala jaso. Horrega-

tik, euskal prentsa helarazteko helburuarekin ekimen solidario hau antolatzen dugu urtero, era honetan harpidetzak ziurtatzeko. Herritarrei dei egiten diegu bertan parte hartzera, elkartasuna adieraztearekin batera mahai inguruan une goxo bat elkarriken igarotzeko parada izango baitugu. Kopuru mugatua denez, txartelak lehenbailehen eskuratzea gomendatzen dugu”, ohartarazi du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

### Martxoak 23, ostirala

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ 21:00 Harpidetza afaria Aitzaga Elkartearen.

Menua: entsalada epela zizekin, masailak saltsan, flan tarta, edariak eta kafea.

■ Prezioa: 20 euro, langabeek 14 euro.

■ Txartelak aurrez salgai Aitzagan.

Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

### Hilobi lote berri baten eskaintza

Hilobi lote berri baten gaineko eskubideak esleitzeko prozedura abiatu du Udalak. Honako hauena: hilobi bat Sahatsa kalea 5 eskuinean eta beste bat 8 eskuinean; 6 hilobiko panteoi oso bana Makala kalea 2an eta 4ean. Prozedura aho batez onartu zuen udalbatzak, otsailaren 27ko osoko ohiko bilkuran. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostetik zenbatzen hasita, deialdian parte hartzeko 30 eguneko epea izango dute interesdunek.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 12.

# Usurbilgo Udala: “N-634 errepideak ez ditu oinarritzko segurtasun baldintzak betetzen”

Istripu larria gertatu zen aurreko ostiralean, Luzuriaga parean. Eguerdiko 14:30ak aldera gertatu zen ezbeharra eta errepidea itxita egon zen denbora batez, auto-ilara luzeak eraginez. Arratsalderako zabaldu zuten berriro N-634 errepidea. Guztira bost lagun zauritu ziren istripuan, herritarrak denak. Donostia Ospitalera eraman zituzten.

## “Ez da lehen aldia”

Arratsalde partean, Udalak prentsa-ohar bat bidali zuen hedabideetara. Eskaera zehatz batekin: Usurbildik igarotzen den errepide zatiari izaera aldatzea, trafiko bolumena murriztu dadin. “Ez da lehen aldia toki horretan bertan halako istripu bat gertatzen dena. Horregatik, eskatu izan dio udalak behin eta berriz Gipuzkoako Diputazioari N-634 errepidearen izaera aldatzeko eta izaera urbanoa emateko, trafiko bolumena murriztu ahal izateko”, Udalak prentsa-ohar bidez jakinarazi zue-



Luzuriagako irteera oso arriskutsua da, bi norabideetan arriskutsu. Aurreko ostiralean, istripua bi kotxe eta kamioi baten artean eman zen. Argazkia: Arantxa Manterola.

## USURBILGO UDALA

**“N-634 errepideari izaera urbanoa emateko eskatu izan diogu behin eta berriz Diputazioari, trafiko bolumena murriztu ahal izateko”**

nez. “Gainera, trenbidearekin batera, hainbat pasagune arriskutsu eragiten ditu eta soluziobide osoa eskatzen du ezinbestean. Herritarrek euren joan-etorrietarako sarritan gurutzatzen baitituzte pasabide horiek, edozein delarik ere tokia. Eta, horregatik, arazoari

adarretatik heltzeko eskatzen diogu diputazioari”.

Usurbilgo Udalaren esanetan, ezinbestekoa da beste herrietan egin den bezala, “N-634ari izaera aldatzeko eta izaera urbanoa emateko Usurbildik igarotzen den zati osoan”.

## 7.000 sinadura erregistratu dituzte Foru Aldundian, garraio zerbitzu publikoen murrizketen aurka

Garraio zerbitzu publikoetan aurrekusi diren aldaketen aurrean, Murrizketen Aurkako Plataformak 7.000 sinadura erregistratu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan. Otsailaren 27an, Ibaetako EHU-ren kanpus ondoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamendua-aren egoitza ataritik abiatu ziren eta Gipuzkoa plazaraino egindako martxaren amaieran aurkeztu zituzten sinadurak Foru Aldundiaren egoitzan.



Murrizketarik Ez Plataformako esanetan, %30-60 arteko murrizketak planteatu ditu Aldundiak eta 30 lagun (langileen heren bat) lanik gabe geratuko lirateke.

## Es kubide sozialen defentsan

Plataformako esanetan, gizarteko sektore ahulenei eragingo dieten %30-60 arteko murrizketak planteatu ditu

Aldundiak, eta langileen heren bat, 30 lagun lanik gabe gera daitezke. Murrizketen aurka 5.000 alegazio eta 7.000 sinaduratik gora bildu dituzte, na-

gusiki Buruntzaldean eta Tolosaldean. “Guk oso garbi dugu zerbitzu publikoen suntsipenen aurrean, eskubide sozialen defentsan jardungo dugu”, iragarri dute. Gizartearen interesak ekonomikoekin gaintetik jartzea eskatu zuten, eta guztioi eragiten diguten erabakietan herritarrek parte hartu ahal izatea. Foru Aldundiari erabil-tzaile eta autobus gidarientzat ahalik eta kalte gutxien sortuko duen adostunera heltzeko negoziazio mahaia zabaltzea eskatzen diote.

# Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzen hastetik hurbilago

Zumarte Musika Eskolaren egoitza, Villa Pilar eraikina birgaitu eta handitzeko bi erabaki garrantzitsu hartu zituen udalbatzak aho batez, astelehenean egin zuten ezohiko osoko bilkuran. Batetik, “Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Exekuzio Proiektua onartzea, udal teknikariek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako baldintzekin”.

Proiektua OS3 Arkitektura Taldeak landu du. Martxoaren 5eko ezohiko osoko bilkuran aipatzen zuten, ibilbide luze bat jorratu du proiektuaren lanketak. Lanketa horrek berriz bidelagun ugari izan ditu; udal ordezkariak, teknikariak, Zumarte Musika Eskolako ardurdun eta erabiltzaileak, Orbeldi Dantza Taldekoenak eta arkitektoa noski. Haien guztien ekarpenekin hornitu da proiektua. Zehaztasun maila handikoa dela nabarmentzen zuen udal gobernu taldeak plenoan, zorroztasun handiko azterketa batetik datorrena, oinarri sendo bat ezarri dela. “Mimo handiz egindako lana” dela zioten udal gobernu taldeak.

Exekuzio proiektuarekin



Proiektua OS3 Arkitektura Taldeak landu du. Martxoaren 5eko ezohiko osoko bilkuran aipatzen zuten, ibilbide luze bat jorratu du proiektuaren lanketak.

## BERRERAIKUNTZA

**“Birgaitze ekologikoa izango da, jasangarritasunaren irizpidea aintzakotzat hartu dute”**

baterra, saio berean aho batez onartu zuten baita, “prozedura ireki eta ohikoaren bitartez, Zumarte Musika Eskola birgaitu

eta handitzeko obra kontratua esleitzeko kontratazio espedientea” eta horrekin batera, “aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzten Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriak”.

Eraikina birgaitu eta handituta, orain arte zituen irisgarritasun arazoak konpondu nahi dira. Hauze izan da hain zuzen,

gauzatzera doazen proiektua sustatzeko argudio nagusietako bat. Birgaitze ekologikoa izango da, jasangarritasunaren irizpidea aintzakotzat hartu dute beraz. Handituta, espazio eraberritu eta zabalagoak musika eskolak dituen beharrei erantzungo die. Eta aukera izanez gero, ez da baztertzeko, Orbeldi Dantza Taldeak bertan haien jardunerako espazio propioa izatea ere.

## Exekuzio epea 12 hilabetekoa izango da

### Aurrekontua:

- 1.998.998,78 euro (BEZ barne).
- Exekuzio epea: 12 hilabete.
- Finantziak: 10 urteetan ordaindu beharreko Kutxa-bank-en mailegu bidez.

### Hurrengo urratsak:

- Zumarteren birgaitze eta handitze lanen obra kontratuaren esleipen deialdira eskaintzak aurkezteko 29 egun naturaleko epea izango dute interesdunek laster, Udalak

martxoaren 5ean hartutako erabakien iragarkia argitaratu ostean.

- Apirilean Kontratazio Mahaiak deialdira aurkeztutako proposamenak bildu eta aztertzeari ekitea aurreikusten

da.

- Maiatzean esleitu daiteke Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua.
- Gero, 12 hilabetez luzatuko dira lanak.

# Xake zaleak, espazio handiagoaren bila

Jolas huts bat baino gehiago da xakea Garazi Mutiloa, Ioritz Karrera eta Jon Howick gazteentzat. Burua, pentsamendua landu eta trebatzeko jarduera bat. NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketan argi utzi duten moduan, kirol jarduera bat. Aisialdi eremuan jokatzeko hasi, eta ikastolan klaseak jasotzen hasi ostean, xake zaleentzako bilgune bat ere badute azken aldiari Oiarde Kiroldegi sarre-rako gelan. Ostiralero biltzen dira, 18:00-20:00 artean. Nahi duena bertaratu daiteke eta xakean jokatzeko ikasi. Toperraino dute, gunea txiki geratu zaie. Espazio propio baten bila dabilta.

## NOAUA! Noiz hasi zineten xakean?

Txikitan, lagun artean, familian, klaseetan. Beste norbaiten aurka jolastea zirrargarria da.

## Ez dakigunontzat, nondik hasi beharko genuke ikasten?

Lehenengo, pieza bakoitzak zenbat balio duen jakin behar da, mugitzearen balioa. Mugimendu berezi batzuk daude, oinarri horrekin partida bat aurrera atera dezakezu.

## Joko konplexua omen da. Hala



Egungo gela "ez da leku bat guk bakarrik egon ahal duguna. Azkenean jende gehiagorekin partekatu behar dugu".

## XAKE JOKALARIAK

**"Hau oso gune txikia da. Jende asko dator, geroz eta gehiago dator denbora pasa"**

## al da?

Ikastean ez da zaila. Ikasteko moduak eta moduak daude. Pazientzia eta sormena izan behar duzu. Zure mugimenduak noiz egin pentsatu behar duzu, eta gero besteak zer egingo dizun eta nola defendatuko prestatu.

## Estrategiak, jokoaren muina

## izango dira?

Ez da bakarrik piezen mugimendua. Nik pentsatzen dudarekin bestearen pentsamenduari aurre hartu behar diozu. Zer pentsatuko duen pentsatu.

## Kiroldegiko harrerako gela honetan biltzen zarete ostiralero. Toperraino betea duzue. Zer moduz moldatzen zarete?

Astelehen eguerditan xake klaseetara joaten gara. Zarautzen torneo batean ere parte hartu genuen. Han lagun batzuk egin genituen. Kluba dute haiek eta nahi dutenean joaten dira. Ideia horretatik abiatuta kluba egin nahi genuen, baina ezinezkoa izan da. Gela hau

eskatu genuen eta hemen gaudela. Ikasi gehiago ikasten dugu asteleheneko saioetan. Hemen azkenean txikiekin elkartu eta haiekin jokatzeko baliatzen dugu tarte hau. Datozenera irakasten aritzen gara. Irakasten ere ikasten dugu.

## Txapelketetan, kanpoan ibili zarete.

Gipuzkoako taldekako txapelketan, zazpigarren sailkatu ginen. Zarauzko lagun arteko xake txapelketa batera urtero joaten gara eta Euskadikora joan ginen Bilbora BEC-era duela gutxi. Esperientzia polita izan zen. Berez Euskal Herriko txapelketa zen, baina kanpotik etorri zen jendea eta giro oso ona zegoen. Denak ziren klub ofizialak gu izan ezik. Denak zuten bere jertsea, txandala. Eta gu normal jantzita.

## Xakea, kirol jardueratzat duzue edo ez?

Jende asko dago jolasa dela, kirola ez dela dioena. Kirol jarduerara gisa kontsideratzen da. Kirola da, olinpiar jokoetan dago. Bada xakea ezagutzen ez duen jendea. Ez du xakean jokatu, esperientzia hori sentitu eta orduan ez daki kirola edo joko ote den. Denok pasa gara hortik eta eramanen jakin behar da.

## "Hau oso gune txikia da"

### NOAUA! Etorkizunean, ze bide jorratu nahi zenukete xakearekin?

Hala segitzea, zaletasun bezala. Hemen ondo pasa nahi dugu.

### Zer ekarpen egin dizue xakeak?

Kontzentratzen eta pentsatzen laguntzen dizugu, ikasketetarako

ederki dator. Baina ikasketetatik kanpo, arnas hartzeko ere jolasten dugu. Etortzen zarenean jolastean burua freskatzeko dugu.

### Animatu nahi zenituzkete kide berriak xakera?

Jendeari gonbidatu etortzera. Jokatzeko jakin ez arren, esan

irakatsiko diegula eta beti egongo dela baten bat hemen. Etorri, ondo pasatzen da. Kirola ez da bakarrik jarduer fisikoa, pentsamendua landuz ere dibertitu zaitezke.

### Amaitu aurretik, besterik aipatu nahi zenukete?

Usurbilen ez dugu klub ofi-

ziala sortzeko aukera izan. Udalarri lokalen bat uztea eskertuko genioke. Hau oso gune txikia da. Jende asko dator, geroz eta gehiago dator denbora pasa. Gainera hau ez da toki bat guk bakarrik egon ahal duguna. Azkenean jende gehiagorekin partekatu behar dugu leku hau.



# “Zer nolako aldaketak egingo dituzten ez dakigu eta kezkatuta jarraitzen dugu”

**A**utobusetako zerbitzu publikoan aldaketak datoz. Foru Aldundiaren Mugikortasun sailak iazko udan aurkeztu zuen aurreproiektuak zalaparta eragin zuen. Balizko birmoldaketa jende askoren kezka iturri bihurtu da. Autobus gidariak, adibidez, kexu dira. Beñat Atxega eta Ainhoa Elgezabal TSST enpresako txoferrekin batu gara. “Zer nolako aldaketak egingo dituzten ez dakigu eta kezkatuta jarraitzen dugu”, aitortu digutenez.

**NOAUA! TSSTko gidariak zaiten aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun sailaren egitasmoak zein neurritan eragingo dizue zuei?**

Aurreproiektuaren arabera, ‘Buruntzaldea’ izeneko enpresa sortuko lukete eta enpresa berriak Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Tolosarainoko lineak bereganatuko lituzke. Gure enpresak, TSST, Lasarte-Orian du egoitza eta Tolosa-Donostia arteko autobus-lineak egiten ditugu nagusiki. Eta Usurbilen, Zubietako eta Ospitaletoako lineak.

**Zerbitzu batzuk murriztuko dituztela, beste batzuk kendu... Datu argirik ez dago. Egitasmo berriak nolako eragina izango du egungo garraio zerbitzuan?** Ez dago batere argi. Aurreproiektuaren arabera, zerbitzu batzuk desagertu egingo dira eta beste batzuk asko murriztuko dituzte.

Adibidez, Ospitalerako autobus zerbitzuaren ordutegia murrizten badute, eragin zuzena izango du gure lanean baina baita herritarrengan ere. Zeren ez dakizu noiz jarriko zaren gaixo, zure familikoek zein maiztasunarekin joan beharko duten ospitalera bisitan...

Hernani aldean, oker ez ba-



Ainhoa eta Beñat, biak TSST bus konpainiako gidariak dira. “Aurreproiektuaren arabera, autobus-linea jakin batzuk desagertu egingo dira. Eta gainontzeko lineatan, murrizketa dezente egingo liriteke”.

## AINHOA ELGEZABAL, GIDARIA

**“Usurbilen sinadura asko jaso dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei”**

gaude, Gleko zerbitzuari ia frekuentzien erdia kenduko liokete. Autobusak maiztasun gutxiagorekin ibiliko liriteke.

Donostian bertan, jende askok erabiltzen du TSST konpainiaren zerbitzua. Añorgatik zentrorra joateko, adibidez. Aukera hori kendu egingo liokete Donostiako erabiltzaileari, soilik Donostiako DBus autobusak erabiltzera behartuz. Eta Mugi autobus txartelarekin, Donostiako batek zergatik ezingo du TSSTa erabili? Ez da logikoa. Foru Aldundiak garraio publikoa sustatu nahi badu, dauden zerbitzuak indartu beharko lituzke. Ez aldatu.

**Murrizketak orokorrak izango dira ala linea jakin batzuei bakarrik eragingo die?**

Aurreproiektuaren arabera,

autobus-linea jakin batzuk desagertu egingo dira. Eta gainontzeko lineatan, murrizketa dezente egingo liriteke. Dena den, ikusteke dago. Zubietako zerbitzua kendu egin nahi izan zuten baina alegazio pilo bat aurkeztu ziren eta atzera egin behar izan zuten. Aurreproiektutik proiektu berrira zer nolako aldaketak egingo dituzten ez dakigu, eta kezkatuta jarraitzen dugu.

**Zuen kasuan, TSSTko lankideen**

**artean, zer nolako giroa duzue?**

Oso egoera ezberdinean gaude. Nik (Ainhoa) urte asko daramatzat konpainian lanean. Ni subrogatu bezala joango nintzateke enpresa berrira. Baina Beñaten kasua ezberdina da. Hasiberria da eta ez dakigu zer gertatuko den bere egoeran daudenekin.

Dena den, denak gaude kezkatuta. Proiektu definitiboa nolakoa izango den ez dakigu, zein baldintzetan egongo garen lanean... Zalantza asko ditugu.

## “Elkar lagundu beharko dugu”

**NOAUA! Nola sortu zen Murrizketarik Ez Plataforma eta nortzuk osatzen duzue?**

**Ainhoa Elgezabal.** Hernaniko talde bat hasi zen batzen eta gu, hasiera batean, entzule bezala joaten hasi ginen. Langile gisa, Foru Aldundiaren egitasmoak eragin zuzena duelako gure jardunean. Baina plataforman denetarik jendea dago. Erabiltzaileak,

pentsiodunak, gidariak... Kaleko jendea.

**7.000 sinadura batu dira. Tolosaldean eta Buruntzaldean nagusiki, ala herrialde osoan?** Firma bilketa ahalik eta handiena egiten saiatu gara eta Usurbilen, adibidez, asko jaso dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei. Elkarren laguntza beharko dugu denok.



# “Nagusiek ere ez dakite gauza handirik”

**A**utobus-lineak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak dira. Bidasoaldean eta Oarsoaldean egin zuten bezala, antzekoa egin nahi dute orain Buruntzaldean eta Tolosaldean: garraio publikoan ari diren enpresak (Garaiar, HASA, TSST) bakar batean elkartu eta enpresa berri horrek kudeatuko lituzke gure inguruko autobus-lineak. Aldaketa honek, langileei ez ezik, enpresei ere eragingo lieke.

## NOAUA! Plan berria indarrean sartzen denean, nola egingo da egokitzapena?

Proiektua onartzen denean, Foru Aldundiak lehiaketa bat antolatuko du eta enpresek lehiaketa horretara aurkeztu beharko dute. TSST-ko langileok adibidez, ez dakigu gure egoitza non egongo litzatekeen edota zein lan-hitzarmenaren arabera arituko ginatkeen lanean.

## Eta zuen enpresan, zer diote nagusiek?

Nagusiek ere ez dakite gauza



Beñat Atxega usurbildarra da eta Ainhoa Elgezabal Lasarte-Oriakoa. Biak TSST enpresako gidariak dira.

### AINHOA ELGEZABAL, GIDARIA

**“Eskatzen duguna da gurekin batzea eta gure iritzia ere kontuan hartzea”**

handirik. Aurreproiektuaren oinarriekin ari dira lanean eta momentuz ez dute egoera txukun ikusten.

## Nola daude epeak oraintxe bertan?

Proiektuak jada argitaratuta egon beharko luke. Baina alegazio asko egon dira eta badirudi pauso bat eman dutela atzera.

## Aldundiak zerbitzuak berregokitu egin nahi dituela dio. “Optimizatu”. Hitz hori erabiltzen

dute.

Bai, hala diote. Baina garraio publikoa izanik, maiztasun jakin bat eskaini beharra dago. Frekuentzia batzuetan, goizeko 10:15ekoan adibidez, autobus batzuk erdi hutsik ibili daitezke. Joanekean igual, baina bueltakoan beteta datoz. Gure enpresan adibidez, autobusak tope ibiltzen dira.

# “Gidarion iritzia ez da kontuan hartu nahi”

## NOAUA! Negoziazio mahai bat osatzea eskatu duzue behin eta berriz. Harreman zuzenik izan al duzue Foru Aldundia-ren Mugikortasun sailarekin?

Bilera eskaerak egin ditugu, alegazioak aurkeztu ditugu... Baina gurekin ez da inor kontaktuan jarri. Eskatzen dugun bakarra da guk ere gure iritzia emateko eskubidea. Gu gara gidariak, gu gara zerbitzua eskaintzen dugunak eta badakigu zer nolako beharrak dauden. Baina gure iritzia ez da kontuan hartu nahi. Eskatzen duguna da gurekin hitz egitea

eta gure iritzia ere kontuan hartzea.

## Zer esango zeniekete autobus-eta erabiltzaileei?

Eskerrak eman nahi dizkiegu lehenbizi. Jende asko hurbildu da galdetzeraz, informatzera, sinatzera... Eta euren firmak zerbaiterako balio dutela adierazteko, sinadurak Foru Aldundian entregatu genituen aurreko asteko mobilizazioaren amaieran. Hor gaudela eta hor jarraituko dugula adierazi nahi diegu. Ea norbaitek entzuten gaituen.

# “Bidaiariak kezkatuta daude”

## NOAUA! Autobusetan ibiltzen den bidaiariaren profila definituko al zenigukete?

Emakumea, batez ere, Donostiar lanera doan emakumea. Unibertsitateko ikasle asko eta ospitalera doazenak. Pentsiodunak ere, asko. Ikusten duzun moduan, profila oso ezberdina da. Dena den, oso ezberdina da astean zeharreko edo asteburuko erabiltzailearen profila.

## Bidaiariak zer diote?

Jendeak murrizketa hitza entzuten duenean, larritu egiten da. Lanera, ikastera edo ospitalera hurbiltzeko

bidea arriskuan ikusten duelako.

Asko eta asko etortzen zaizkigu galdezka. Oraindik ez dituzte murrizketak egin. Proiektua ez da argitara eman, baina beldur hori badu jendeak.

## Oharra

Informazioa osatze aldera, otsailaren 23an Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarekin jarri ginen harremanetan. Galdera batzuk helarazi genizkien baina oraindik ez dugu erantzunik jaso.

## Troiako pasabideak zeresana ematen jarraitzen du

Usurbilgo Udalak urtarrila amaieran aditzaera eman zuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak atzera egin zuen Troiako pasabidea eraikitzeke ahaleginean. Eta arrazoi ekonomikoak aipatzen zituen, Foru Aldundiak ez zuela diruz lagundu nahi argudiatuz. Aurreko astean, Foru Aldundiaren erantzuna jaso genuen orriotan. Honakoan, udal gobernuaren erantzuna eta Usurbilgo EAJren prentsa-oharra izan dira iritsi zaizkigunak.



Troiako pasabidearen harira, Usurbilgo Udalaren eta EAJren adierazpenak iritsi zaizkigu aste honetan.

## Usurbilgo Udala: “Ez da zilegi Udalari konpromiso falta leporatzea”

Foru Aldundiko Bide-Azpiegituretako diputatuak aurreko astean Troiako pasabideari buruz esan zituenak ez ditu egoki ikusi Usurbilgo Udalak. “Egia urruti du ohar horrek. Merkea da Udala erantzule egitea. Zintzotasun eza da nagusi”. Semaforo bidezko alternatiba legegintzaldi hasieran aztertu zela dio alkateak eta Diputazioa bera izan zela aurretiko pasabidea eskatu zuena. Elkartzeko eta konponbideak bilatzeko garaian, ekimena beti Usurbilgo udal agintariena izan dela dio Xabier Arregik. “Udala eta diputazioaren arteko bilera otsailaren 23an egin zen, udalaren eskariz, berriz ere”. Bilera horretan esan zitzaion Udalari kostu handia daukala proiektuak (2,4 milioi euro) eta Udalak ere zerbait jarri beharko lukeela. Troia aldeko aldapan oinezkoen bidetari segida eman behar zaiola eta horren ardura Udalak hartu beharko lukeela. Udala ados agertu zen eta bere gain hartzen zuela eginkizun hori. “Eta bilera horretan, ez lehenago, jakinarazi zuten aztertuko zutela semaforo bidezko irtenbidea. Edonola ere, Udalaren irudiko, konponbideak osoa behar du izan, integrala, eta ez behin-behineko konponbidea”.

### Hitzarmen proposamena

Bilera horretan Udalak behin eta berriz jarri zuen mahai gainean Usurbilek hainbat puntu beltz dituela, eta hitzarmen bat egin beharko litzatekeela, eragile guztien adostasunez, nork bere konpromisoak hartuz. Udala prest agertu da hitzarmen horren araberrako ekarpenak egiteko, zentzuz dagokion neurrian. “Jarrera hori behin eta berriz erakutsi dugu. GFak ez du hitzarmen hori lantzeko borondate garbirik erakutsi”.

Xabier Arregiren esanetan, “ez da zilegi Usurbilgo Udalari konpromiso falta leporatzea, horrela norbere hutsa estaltzeko. Elkarlan espiritua kinka larrian jarri duena Foru Aldundia izan da, ez diolako aurre egin nahi izan konponbide honek eskatzen duen konpromisoari”.

### “Konponbide integral bat”

Dena den, alkateak ika-mikak albo batera uzteko deia egin nahi izan du. “Garaiz gaude aurrera egiteko. Herritarrek zinez eskertuko digute. Usurbilek ezinbestean eta premiaz behar du puntu beltz arrisku-tsuen konponbide integral bat. Erakundeok batera jokatu behar dugu horretan, eta Usurbilgo Udala prest dago eragiteko eta laguntzeko”.

## EAJ Usurbil: “Konponbide egingarri bat proposatu dezala alkateak”

EHBilduren udal gobernuak planteatu duen proiektuaren harira, Usurbilgo jeltzaleek informazio eta gardentasun falta salatu dute: “Usurbilgo udal gobernuaren aldetik Troiako pasabidea dela eta ez dugu inolako informaziorik jaso Udaletxean”.

Beste behin ere, alkatearen asmoen berri prentsatik eta publizitatetik jakin dutela ohartarazi du EAJ-PNVko udal taldeak. “Nola eskatzen zaie beste agintariei usurbildarroi eduki beharreko errespetua, alkateak berak bere herritar batzuei halakorik agertzen ez badie?”.

EAJren esanetan, EHBilduren udal gobernuak ez da zuzen ari “gauzatu ezinezko proiektu handiak bultzatuz, bai baita ez dela ez errealista eta ez zentzuzkoa 2,4 milioi eurotako oinezkoen pasabide bat gauzatea eta hori herritarrei gezurra esatea da”.

### “Badaude soluzio egingarriak”

EAJren ustez, badaude Troiako pasabideari konponbidea emateko soluzio egingarriak. Bide batez, gogorarazi nahi diote alkateari “ordua dela berari dagokion erantzukizunari aurre egiteko”, agintean daramatzan urteetan “ez

baitu bere eskumenekoa den proiekturik martxan jarri oinezkoen paseoa antolatzeke”. Bestalde, “aurreko legegaldian Bildu Foru Aldundiko gobernuaren egonik ezer egin ez bada ere”, legegaldi honetan pausoak emateko eskaera egin diote jeltzaleek udalari. “Udal gobernuak bere alderdi interesak alde batera utzita, beste erakundeekin jarrera konstruktiboan lan egiten hasteko” eskatu diote, “garaia baita oinezkoen pasabide horri irtenbide bat emateko”.

### Semaforo bidezko pasabidearen alde

Usurbilgo EAJK mozio bat idatzi du “egoera honi benerako konponbidea emateko, udal gobernuari N-634 errepidea gurutzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitureta departamentuak planteatutako pasabide semaforizatu gauzatu dadin”. Elkarlanari ekin diezaiola eskatzen dio EAJK EHBilduri, “proiektu honetan udal eskuduntzakoak diren gaiak bere gain hartu eta horretaz gain ETS-rekin trenbidea gurutzatzeko pasabidearen soluzioa, finantzaketa eta epeak berresteko ere”.



# NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 13, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia **18.00** / 2. deialdia **18.30**

## GAI-ZERRENDA:

- 1) 2017ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2018ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



## BAZKIDEEN TXOKOA



Martxoaren 9an Zozketatuko dugu:

**SAIZAR  
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO  
afaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

**noaua! euskararen aterpe**



# Gezurra badirudi ere, argazki hauen artean



Zubietako errebote plaza. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 8:39an.



Zubietako errebote plaza. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:40an.



Zubieta. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 9:10ean.



Zubieta. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:22an.



Santuenea. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 9:29an.



Santuenea. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:17an.



# bederatzi orduko aldea bakarrik dago



Santueneko jolas-parkea. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 9:30ean.



Santueneko jolas-parkea. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:18an.



Artzabal parkea. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 10:12an.



Artzabal parkea. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:52an.



Usurbilgo kaxkoa. Otsailak 28 asteazkena, goizeko 9:59an.



Usurbilgo kaxkoa. Otsailak 28 asteazkena, arratsaldeko 17:58an.

Elurteko argazki gehiago, [noaua.eus/Argazkitegia](http://noaua.eus/Argazkitegia) atalean.

# Udala, martxoaren 8ko grebarekin bat



Mozioko, besteak beste, emakumeek pairatzen dituzten bazterkeria egoerak salatzen ditu.

**E**uskal Herriko mugimendu feministak martxoaren 8rako deitu duen greba feministarekin bat egin du Usurbilgo Udalak, EHBilduk aurkeztu eta udalbatza osoak otsailaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen moziorekin bidez. “Martxoaren 8rako mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak deitu duten grebarekin bat egitea, eta herriko emakumeak deitzea, greba deialdiarekin bat egitea, eta herritarrek bere osotasunean deitzen dituzten mobilizazio nagusietan parte hartzea”, dio udalbatza osoak babesturiko mozioak.

Moziok argi dio, emakumeak mendean hartu eta zapaltzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzea helburu du, Martxoaren 8rako deitua dagoen greba feministak. Ezin-

## MOZIOAN JASOA

**“Martxoaren 8rako mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak deitu duten grebarekin bat egitea, eta herriko emakumeak deitzea, greba deialdiarekin bat egitea”**

bestekotzat jotzen da “emakumeek antolatzea eta sistema borrokatzea, eta pertsonak erdigunean jarriko dituzten beste sistema sozioekonomiko baten alde egitea. Horretarako, ezinbestekoa da euskal herritarrok erabakitze eskubidea izatea politika publiko guztietan, genero-berdintasuna bermatzeko”.

Moziok emakumeek pairatzen dituzten bazterkeria egoerak salatzen ditu. Euskal emakumeak nabarmendu nahi

ditu testuak. “Ostalaritza edo merkataritzaren zerbitzuetan lan egiten duten emakumeak, nagusiki prekarizatutako alorrek baitira; aniztasun funtzionala duten emakumeak; preso dauden emakumeak; bizi osorako prekarietatera bultzatuak izaten ari diren emakume gazteak; bisexual, trans eta sexu, genero zein beste disidentziatakoak...”.

## Emakumezko udal langileek greba egingo dute

Aipatu moduan, mozio honen bidez, Udalak bat egin du Emakumeen Eguneko mundu mailako greba feministarekin. Osoko bilkura berean, udal gobernu taldeak berri eman zuten beste beste emakumezko udal langileek martxoaren 8an zer egin erabakitzeko batzarra egin zuten otsaila amaieran. Planto egitea erabaki dute, ostegunean grebara doaz.

## Bazterkeria egoera anitz

- Emakumeek gizonek baino 7.500 euro gutxiago irabazten dituzte urtean.
- Lanaldi partzialen %76,3 emakumei dagozkie.
- Emakumeen %27,6k aldi baterako kontratuak dituzte.
- Feminizatutako lanbideak

(%59 zerbitzuetan) prekarizatuak dira.

- Etxeko langileen %87 atzeritarrak dira. Haietatik %46 etxe-barruko langileak. Herenak baino gehiagok lan kontraturik ez. %80ak 60 orduko gora egiten du lan astean eta %85ak

dagokion gutxieneko soldata ez du jasotzen.

- Iaz 7 emakume eta bi adin txikiko hil zituzten. 2 egunetik behin salaketa bat jartzen da sexu erasoengatik. 2017an %36 egin zuen gora salaketa kopuruak, 2016arekin alderatuta.

## Deialdiak

### Martxoak 8, osteguna

#### Lan uzteak

■ 11:00-15:00 / 18:00-22:00 Euskal gehiengo sindikalak (LAB, ELA, Steilas, ESK, Hiru, EHNE) deitutako lan uzteak.

■ 11:00 Agerraldia Usurbilgo udaletxe atarian.

■ 12:00/20:00 Mobilizazioak hiriburuetan (Donostiakoak Bulebarretik).

■ Informazio gehiago: grebafeminista.wordpress.com

■ Deitzailea: Euskal Herriko Mugimendu Feminista.

### Solasaldia Kabiienen

■ 18:00 Emakume ekintzaileekin, haien ibilbide profesionalaz solasaldia Kabiienen.

■ Sarrera librea.

■ Solaskideak: Miren Narbaitza (MICE), Leire Cancio (Elhuyar), Arrate Imaz (Loratu), Oihane Iribar (Xixahori) eta Idoia Torregarai (Barretartia).

■ Antolatzailea: Kabiene elkarlan gunea.

### Martxoak 9, ostirala

#### Bertso-afaria

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabal.

■ Parte hartuko duten bertsolariak: Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagola.

■ Gai jartzailea: Ainhoa Agirreazaldegia.

■ Txartelak: aurrez salgai Artzabal. Txartel kopurua, mugatua.

■ Antolatzaileak: Bota Punttuba bertso eskola, Matrakak Talde Feminista eta Udala.

### Martxoak 16-17

#### Autodefentsa feminista

#### ikastaroa Oiardon

■ Bideratzailea: Emagin Elkarte.

■ Martxoak 16 ostirala, 16:00-20:00.

■ Martxoak 17 larunbata, 09:30-13:30.

■ Izen ematea (martxoaren 14a baino lehen): parekidetasuna@usurbil.eus 943 377 110

■ Antolatzailea: Udala.



# Eraso sexisten aurkako aplikazioa ezarriko du Udalak, beharrezko lanketa egin ondoren

**P**SE-ren udal ordezkari Fermin Orue-Echevarriak eraso sexisten aurkako aplikazioa sortzeko proposamena eraman zuen mozio moduan, otsailaren 27ko udalbatzaren osoko ohiko bilkurara. Gainerako udal ordezkari guztien aho bateko babesa jaso zuen.

Mozio hau onartuta, “Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioa (app) ezartzeko, era horretan sexu-eraso oro denbora errealean salatu ahal izan dadin, eraginkortasun handiagoarekin eta bizkorrago jardun ahal izan dadin, eta, horri esker, horrelako delituak saihestu ahal izan daitezten”.

Aplikazioa ezarri aurretik, gai honi buruzko lanketa bideratzea proposatu zuen udal gobernu taldeak, aplikazio



Otsailaren 26an jende asko batu zen Mikel Laboa plazan, indarkeria sexista salatzen Udalak deitu zuen elkarretaratze isilean.

## AHO BATEZ ONARTUA

**“Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioa (app) ezartzeko”**

hau Usurbilen nola txertatu

erabakitzen. Horretarako EUDELekin batera koordinatu asmo du Udalak.

**Segurtasuna areagotzeko baita** Aplikazio hau, udalbatzak onarturiko mozioaren arabera, “emakumeek indarkeria matxistari aurrea hartzeko neurri gisa pentsatuta dago, baina lapurrete aurrea hartzeko eta

aisia-gauetan neska nerabeen segurtasuna areagotzeko ere balio dezake. Izan ere, neska nerabeek mutilen segurtasun-maila bera izan behar dute kalean ibiltzen direnean”.

Aplikazioa “ezarri zenetik, ekimen horrek oso eragin positiboa izan du herritarrengan, eta EUDELera iritsi da, euskal udal guztietan aplikatu dadin”.

## Martxoak 8: murrizketak udal zerbitzuetan

**A**urreko astean berri eman genizuen moduan, mozio bidez Usurbilgo Udalak eta emakumezko udal langileek eginiko batzarrean, greba feministarekin bat egin eta honenbestez Martxoaren 8rako iragarri diren lan uzteekin bat egitea erabaki dute. Udal zerbitzuetan ikusgarri egingo dute honenbestez, Emakumeen Egunerako deitu den greba.

Udalak ohartarazi duenez, grebak ohiko jarduna baldintzatuko du eta “hainbat zerbitzutan murrizketak izango dira”:

■ Haur eskola: langile guztiek



Mugimendu Feministak antolatu du martxoaren 8ko greba.

planto egingo dute, eta, ondorioz, haur eskola 11:00etatik 15:00etara itxita egingo da.

■ Kiroldegia: 18:00etatik au-

rerra igerilekua itxita egingo da (soilik “Antxoen” ikastaroa emango da), eta arratsaldeko spinning ikastarorik ere ez da

izango.

■ Oinarrizko lanbide heziketa: 11:00etatik aurrera lanuztea egingo dute irakasleek.

■ Liburutegia: bertako langileek arratsaldean egingo dute lanuztea, eta, horrenbestez, 17:30etatik aurrera liburutegia itxita egingo da.

■ Artzabal zahar egoitza: langileek hala erabakita, egun osoan itxiko dituzte taberna eta jatetxea.

Gainerako zerbitzuak bere horretan mantenduko dira, hala nola erregistroa, eguneko zentroa, eguneko arreta, etxez etxeko zerbitzua eta taxi busa.





# Parekidetasunaren alde lasterka

**L**inoiz baino gehiago, 6.050 emakume izena emanda, haietatik 5.240 irten ziren martxoaren 4an Donostiako 29. Lilatoian; iaz baino 439 lasterkari gehiago. Tartean, 63 herritar bildu zituen parekidetasunaren aldeko lasterketak. Segidan duzue sailkapena. Emakumeen eskubideen aldeko Lilatoian irtendako zubietar talde batek helarazi digun irudia duzue ondokoa.

## 29. Lilatoiko herritarren sailkapena

Aroa Arruti Castresana 00:21:59  
 Loli Elkano Irurtia 00:23:48  
 Elhuiar Urdanpilleta Martikorena 00:24:37  
 Enara Urdanpilleta Villagrasa 00:25:14  
 Eli Eizagirre Bruño 00:25:23  
 Jone Pikabea Muxika 00:27:31  
 Agurtzane Alkorta Urdampilleta 00:27:31  
 Arantxita Usarralde Aranzadi 00:28:26  
 Marimar Uribe Navarro 00:28:36  
 Mainer Izagirre Sarasola 00:30:12  
 Iratxe Begiristain Otegi 00:30:13  
 Itziar Dorronsoro Ariz 00:30:13  
 Yolanda Redruello Gomez 00:30:25  
 Garazi Lizaso Manterola 00:30:53  
 Ekiñe Zalakain Martija 00:30:53  
 Amaia Añorga Manterola 00:30:53  
 Izadi Azkonobieta Etxabe 00:30:53  
 Amaia Murugarren Merino 00:30:59  
 Amaia Kaperotxipi Arruti 00:31:11  
 Agurtzane Solaberrieta Mesa 00:31:33  
 Malen Lanz Garcia de Eulate 00:31:33  
 Miren Azkonobieta Mitxelena 00:31:33  
 Beatriz Irasuegi Salsamendi 00:32:26  
 Txus Iglesias Rio 00:32:59  
 Idoia Amas Etxarri 00:34:20  
 Leyre Barreña Goikoetxea 00:34:30  
 Olatz Lazkano Portu 00:34:31  
 Laida Gonzalez Ibirriaga 00:34:31  
 Yolanda Arrieta Malaxetxebarria 00:35:18  
 Noelia Perez Alcala 00:35:41  
 Amaia Martinez Zumeta 00:35:59  
 Lurdes Salaberria Garmendia 00:36:24  
 Arantxa Araolaza Zumeta 00:36:27  
 Carlota Blazquez Martin 00:36:55



63 usurbildar atera ziren Lilatoian. Argazkia: Izaz E Etxabe-ren Facebook orrialdetik hartua.



Zubietar talde batek helarazi digu ondoko argazkia.

Ana Maria Martin Alberdi 00:36:56  
 Jessica Rodriguez Afonso 00:37:20  
 Aroa Etxeburua Ugartemendia 00:37:20  
 Arrate Imaz Eizagirre 00:37:21  
 Aitziber Eizagirre Zaldia 00:37:26  
 Josune Iparragirre Tolaretxipi 00:37:26  
 Nekake Zaldia Iturriotz 00:37:27  
 Olatz Zuloaga Segurola 00:37:27  
 Olatz Altuna Zumeta 00:37:28  
 Cristina Rodriguez Remigio 00:37:36  
 Haira Rivero Arrieta 00:37:37  
 Oihana Delso Aizpurua 00:37:44  
 Intza Macuso Iribar 00:37:45  
 Idoia Aranburu Goikoetxea 00:37:45  
 Gurutze Benitez Galarza 00:37:57  
 Laila Garcia Sierra 00:38:06

Gurutze Sierra Moron 00:38:07  
 Leire Lizarralde Agirrezabal 00:38:16  
 Alazne Olaizola Iparragirre 00:39:38  
 Andrea Iturain Aizpurua 00:39:43  
 Maria Fernandez 00:39:44  
 Amaia Artola 00:39:44  
 Estibalitz Lazkano Fernandez 00:39:44  
 Patricia Fernandez Alvarez 00:40:10  
 Monica Ramos Merayo 00:40:40  
 Uxue Altuna Tapia 00:40:47  
 Elixabet Olaizola Aizpurua 00:41:06  
 Olatz Berasategi Ruiz 00:41:06  
 Olatz Urdangarin Salsamendi 00:41:23

**Informazio gehiago eta sailkapen osoa:**  
[kirolprobak.com](http://kirolprobak.com)

**txirriStra**  
 TABERNA

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ANTXETA**  
 taberna-jatetxea

eguneko menuak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**Patxi**  
 jatetxea

• bazkariak EGUNERO  
 • afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361



# Erraustegiari emandako Ingurumen Baimen Bateratuak ez du herritarren osasuna bermatzen

**H**ala dio CSIC (erdaraz, Consejo Superior de Investigaciones Científicas) estatu espainiarreko agentziako bi zientzialarik, Eduard Rodríguez Farré doktoreak eta Fernando Palacios doktoreak landu eta plazaratu berri duten txosten perizial eta zientifikoak. Helburu argi batekin egin dute. Zubietan eraikitzen ari diren plantako "errausketa prozesuek herritarren osasunarentzat kaltegarriak izango diren substantzia toxikoak eragingo dituzten eta isurketa hauetarako emisio mailak finkatu diren edo ez" egiaztu nahi izan dute.

Martxoaren 2an aurkeztu zuten Donostian, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren egoitzan, Hitzartu prozesua abiatzeko antolatu zuten ekitaldiaren baitan. Txosten honek, Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 11n Zubietako erraustegiari emandako Ingurumen Baimen Bateratua aztertu du. Eta ondorio nagusi honetara heldu dira zientzialariak. "Azterturiko Ingurumen Baimen Bateratuak ez du bermatzen osasuna, atmosferara isurtzen diren substantziekin kontrol eta mugarik ez baitu ezartzen. Inguruan barreiatuko dira, landaretan, lurzoruan eta uretan".

Txostenak gogorarazten du, egungo legediak Ingurumen Baimen Bateratua herritarren



Eduard Rodríguez Farré doktorea, Bartzelonako Biomedikuntzako Ikerketako Institutuko irakaslea, CSIC-IDIBAPS zein ISCIII-ko Epidemiologia eta Osasun Publikoko CIBEReko kidea, eta Europar Batasuneko osasun arrisku berrien Batzorde Zientifikoko kide ohia.

## CSIC AGENTZIA

**"Ingurumen Baimen Bateratuak ez du bermatzen osasuna, atmosferara isurtzen diren substantziekin kontrol eta mugarik ez baitu ezartzen. Inguruan barreiatuko dira, lurzoruan eta uretan"**

osasunarentzat eta ingurumeneko arriskutsuak diren substantzien emisioa mugatu behar duela. Zehazkiago esanda, propietate mutageno edo kantzerigenoak izan edo airearen bidez ugalketan eragin dezaketela frogatuak dauden substantziena. Zubietako erraustegiari emandakoak al-diz, gabezia nabarmenak ditu. Erraustuko diren hondakinek isuriko dituzten hainbat substantzia kutsakorrekiko kon-

trolrik ez da ezarri eta ez dira mugatu gehienezko emisio kopuruak.

## Isurketak, kaltegarriak

Zientzialariok eginiko lanketak argi utzi du; segurtasun neurri guztiak hartuta ere, erraustegiak toxikoak dira eta ingurua pozoitzen dute. Iragazkiak, arazketa sistemak jarrita ere, substantzien emisioa baimendutakoa izan arren, berdin berdin, "substantzia arriskutsuak isurtzen dira". Airean zabal-tzen dira, eta instalakuntzon inguruan pilatzen dira, kontzentrazio maila altuan gainera.

Onenean jarrita, isurketa maila baxuenak izanda ere eta guztiak kontrolpean egongo balira, substantzia hauekiko etengabeko esposizioagatik, "erraustegien inguruko ur eta elikagai ingestioak, patologiak izateko gehiegizko arriskuak eragiten ditu pertsonengan".

## Hondakinak erraustu eta gaixotzearen arteko lotura

Ikerlan honek ohartarazten duenez, ezagunak dira isurketok herritarren osasunean izan ditzaketen eragina. Minbizia, mutagenoak edota ugalketan kalteak ekar ditzakete. Ikerketak agerian uzten du beste behin, izan erraustegi zaharretan edo izan European martxan diren erraustegi modernoetan, kasu guztietan, agerikoa dela hondakinak erraustea inguruan bizi diren herritarrei eragiten dizkieten "patologia serioak".

Neurriak hartzen ez badira gainera, erraustegien emisioetan substantzia berrien agerpenak, "orain arte argitaratu izan diren datuen bidez ezagutzen duguna baino eragin are serioagoa izango du pertsonen osasun eta ingurumenean". Eta eragin nabarmenena, erraustegitik gertuen bizi garen udalerrietako herritarrengan. "Erraustegiaren emisioek gertutasunagatik eragin nabarmenagoa izango dute erraustegiaren bueltan dauden biztanleengan; Usurbilen, Zubietan, Lasarten eta Urnietan. Udalerrietako kaxkoak erraustegitik 1-3 kilometrorra kokatuak daude, eta Andoain eta Igara 3-5 kilometrorra".

## Ingurumen organoen eraginkortasun falta

Adituon txostenak hainbat gabezia antzeman ditu:

- Identifikatu gabeko substantzien toxikotasunari buruzko datu falta.
- Metal arriskutsuen emisio saihestezinak.
- Tximinien eraginkortasun falta. Horrek emisioen gehitzea

dakar.

- Dioxina eta furanoen gisako substantzia oso toxikoen sorrera tximinietan, eta haien gehitzea ingurunean eta giza ehunetan.
- Erraustentzat eta arazitako uren tratamendurako teknika egokien falta.
- Gasek euri azidoa, ozonoa eta

arnasketa sistema erasaten laguntzen dute.

- Beste substantzia organikoen eraginen handiagotzea giza ehunetan: toluenoa, bentzenoa, alkoholak, fenolak...
- Kutsaduraren kontrol falta eta jarraipen taldeen efizientzia falta.

- Hondakinak 1.100 gradutara erraustea ez ditu desegiten zenbait substantzia toxiko: bentzenoa eta toluenoa.
- Temperatura 700etik 930 graduzentigadura igotzean, metalen emisioa handitzen da.
- Pizte/itzaltze faseetan, dioxina kopurua izugarri igotzen da.

# GuraSOsek Ingurumen Baimen Bateratuaren aurkako auzian baliatuko du txosten periziala

CSIC-eko bi zientzialarion txostena, GuraSOsek eskatuta egin da, "inongo ordainsaririk gabe". GuraSO-Seko ordezkari eta abokatu Joseba Belaustegik txosten honen aurkezpen ekitaldiaren hasieran iragarri zuenez, "EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztuko du adituen txostena, erraustegiaren Ingurumen Baimen Integratuaren aurkako auzian".

Aste honetan bertan aurkeztekoak dira auzi horretarako demanda. "Bertan salatzen dugu ingurumen baimenak ez duela bermatzen, beharko lukeen bezala, gure seme-alaben eta gizartearen osasuna", CSIC-eko zientzialarion ikerketak dioena aintzakotzat hartuta. "Bi zientzialari hauek egin duten ikerketa oso larria da, zeren frogatzen du goitik beherako kontrol hori ez dela existitzen, ez dela egia. Kontrolatik kanpo daude hainbat



**Fernando Palacios doktorea, CSIC-eko ikertzaile titularra eta MNCN-Biodibertsitate eta Biologia ebolutiboko sailekoa.**

substantzia, osasunerako oso arriskutsuak direnak".

## Hitzartu, deialdiak Martxoak 9, ostirala

■ 19:00etan Etxabaida saioa Ibaetako EHuko Carlos Santamaría Auditorioan: "De-

mokrazia eta hiritarren parte-hartzea adostasun zabalak beharrezkoak direnean, hiritar arduratsua edo alienatua (delegazioa), nola sendotu gure demokrazia, nola sendatu gizartea". Aurkezlea: Iñaki Soto (Gara egunkariako zuzendaria).

Solaskideak: Arantza Campos (EHU/UPV), Garbiñe Biurrin (UPV/EHU), Juanjo Álvarez (UPV/EHU), Braulio Gómez (Deustuko Unibertsitatea) eta Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea).

## Antolakuntzaren oharra:

-Etxabaida saioko solaskide bakoitzaren iritziak pertsonalak izango dira.  
-Kontziliarioa eta berdintasuna bermatzeko hurrentzako zaintza, ipuin kontalaria eta piano musika izango dira.  
-Hitzartu Kulturean parte hartzeko bonoak eskuragarri jarriko dituzte.  
-Hitzartu diruz laguntzeko bideak:

Laboral Kutxa:

ES05 3035 0140 33 1400031124  
Kutxabank:

ES83 2095 5060 10 9117692165

## Informazio gehiago:

hitzartu.eus

# Martxoaren 20a, mobilizazio eguna

"Langileok ere erraustegia gelditu. Badago alternatiba!" aldarripean, jardunaldi eta mobilizazio eguna deitu dute sindikatuak eta errausketaren aurkako bilguneek, martxoaren 20rako Donostian.

## Martxoak 20, asteartea

■ 09:30 Unibertsitatean: Piotr Barczak, Europako ingurumen

bulegoko hondakinen ardurdun teknika.

■ 10:30 Sindikatuen mahai ingurua unibertsitatean: lan osasuna eta langileon bizi baldintzak.

■ 12:30 Lan-munduko eragileen giza katea, Foru Aldundiren inguruan.

■ 18:00 "Angula ustelak" hitzaldia Donostiako San Tel-

mon. Hizlariak: Ainhoa Intxaurrandieta, Igor Melchor, Piotr Barczak.

■ 19:30 Giza katea Foru Aldundian.

■ Antolatzaileak: Errausketaren Aurkako Mugimendua, ELA, LAB, CCOO, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU, COBAS, BIOLUR, Baserri XXI, OlatuKoop, Donostia Bizirik.

## Kontrolpean egongo ez diren substantziak

Zientzialarion txostenak ohar-tarazten du, Zubietako erraustegia martxan jartzen bada, substantziak toxikoen emisioa ez dela kontrolpean izango. Eta osasun arazo larriak eragin ditzaketela honenbestez. Xehetasun hauek datorren astean eskainiko ditugu.

 **Kima**   
MASAJE LEKUA  
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# Lau orduko plantoa egingo dute Udarregi Ikastolan

Udarregi Ikastolak ere bat egin du Martxoaren 8rako deitua dagoen greba feministarekin. Joan den otsailaren 26an, Ikastolako langileen batzarrak ostegun honetako plantoa babestea erabaki zuten. Lau orduko lan uztea egingo dute. “11:00etatik 15:00era ikastolako emakumezkook egingo dugun plantoa aurrera ateratzeko eta klase egun arrunt bateko antolaketa ezinezkoa izango denez, zaintza gisa antolatu da 11:00-15:00 tramua”, ohartarazi dute ikastolatik. Honako eragina izango du zikloka, lan uzteak:

■ Haur Eskola: langile guztiak greba egingo dutenez, itxita egingo da 11:00-15:00 artean.

■ HH, LH, DBH: 11:00-15:00 artean 17 langile egongo dira eta etapa guztietako ikasleen kargu egingo dira maila ezberdinetan banatuta.

■ Garraioa: 12:30eko 14:30eko zerbitzuak ikastolako bi langileekin burutuko dira.

■ Jangela: 3 begirale gutxiagorekin eskainiko da zerbitzua.

Informazio gehiago: [udarregi.eus](http://udarregi.eus)



“11:00etatik 15:00era ikastolako emakumezkook egingo dugun plantoa aurrera ateratzeko eta klase egun arrunt bateko antolaketa ezinezkoa izango denez, zaintza gisa antolatu da 11:00-15:00 arteko tartera”.

## HAUR ESKOLA, ITXITA

**Haur Eskolan langile guztiak greba egingo dutenez, itxita egongo da 11:00-15:00 artean**

## “Gorputzaldiak” egitasmoko bigarren saioa

Gorputz adierazpena baliatuta, ikasleekin lantzen ari diren hezkuntza proiektu hau gurasoei ezagutarazteko saioa antolatu zuen otsaila hasieran Udarregi Ikastolak. Haiei zuzendutako bigarren hitzordua deitu dute larunbaterako, martxoak 10, 10:00etan Agerialdeko jange-

lan. “Gogoratu saioa burutze-ko arropa eroso ekartzea gomendatzen dugula. Normalean oinutsik burutu ohi da jarduera hau; baina jangelako lurra hotza denez, egokiena galtzerdi lodi edo oinetako erosoekin etortzea litzateke”, ohartarazi dute ikastolatik.

## “Udarregi 50 urte” argazki erakusketa

Ikastolaren mende erdiko ospakizunen artean, 50 urteok iruditant bilduko dituen erakusketa antolatu dute. Martxoaren 19tik 23ra ikusgai izango duzue Sute-  
gin, 17:00-19:00 artean.

## Bideo jolasen eta robotikaren inguruko udaleku irekiak

Ata joka ditugun oporretarako, teknologia berriei lotutako udaleku irekiak antolatu ditu Ikastolen Elkarteko aisialdi-taldeak, LH 4,5, eta 6.mailako ikasleentzat. “Ikastaro horien helburuak, pentsamendu konputazionalaren oinarria ezagutzeko, teknologia berriak euskaraz bizitzeko aukera berritzaileak ahalbidetuz, sormena sustatzea dira (Maker mugimendua)”. Baretetik, bideo jolasak sortzeko jarduerak eskainiko dira, eta bestetik, robotak programatu eta haien arteko interakzioa nola bideratu ikasi ahaliko da.

Apirilaren 3tik 6ra izango dira udalekuok Udarregi Ikastolan, 9:00-13:00 artean. 8:30etatik zaintza zerbitzua izango dela ohartarazi dute. Taldea osatzeko gutxienez 10 lagunek eman beharko dute izena, martxoaren 15a baino lehen, Udarregi Ikastolako idazkaritzan. Prezioa: 75 euro (Ikastolen Elkarteko ikasleek). Informazioa: [aisialdia.eus](http://aisialdia.eus) / [udarregi.eus](http://udarregi.eus)

## Udal diru-laguntzak

Martxoaren 13ra arte zabalik izango da, Usurbilgo Udalak eginiko diru-laguntza deialdira eskabideak aurkezteko epea.

Guztira zazpi diru-laguntza lerro daude herritar eta eragileen eskura: deserritze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko; igogailuak instalatzeko; gizarte zerbitzuen, nekazaritza-abeltzaintza arloko, kultur eta kirol egitasmoak sustatzeko laguntzak. Informazio gehiago: [usurbil.eus](http://usurbil.eus)  
Otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

# Usurbilgo turismo eredua, hausnarketa fasean

Etorkizunean Usurbilgo turismoari bultzada eman asmo dio Usurbilgo Udalak, herri honek badio eta zer erakutsia munduari. Baina ez dute edozein modu eta neurritan egin nahi. Sustatuko den turismo eredua herritik eraiki nahi du. Horretarako, hausnarketa faseari ekin dio egunotan.

Ondoko irudian, martxoaren 1ean ostegunarekin, kultura eta sozioekonomia eremuetako eragileetako ordezkari hainbatekin Potxoenean egindako saioa.



Martxoaren 1ean kultura eta sozioekonomiako eragileekin batu zen Udala.

# 'Goazen kalera' egitasmoak gazteak eta helduak batzen ditu

**G**oazen kalera proiektuan, DBH3ko gazteok adineko jendearekin elkartzen gara. Bertan, beraiekin ibilbide bat egiten dugu eta ibilbidean zehar adineko jendearekin hitz egiten joaten gara; esaterako, beraien eta gure pasarteak kontatuz.

Ibilbidea egin aurretik partaideen txartelei zigilua jartzen diegu etorri direla ziurtatzeko. Taldearen hasieran eta amaieran jartzen gara segurtasun txalekoekin segurtasuna bermatzeko eta mugikortasunean laguntzen diegu beharrik bailego.

## Kultur transmisio polita

Adinen arteko harremana indartzen dugu belaunaldien arteko ideiak eta bizipenak partekatuz eta haiek dituzten baloreak ezagutuz. Gainera, iruditzen zaigu guk beraien-gandik ikasten dugun bezala



"Taldearen hasieran eta amaieran jartzen gara segurtasun txalekoekin segurtasuna bermatzeko eta mugikortasunean laguntzen diegu".

## DBH3 IKASLEAK

**"Iruditzen zaigu guk beraien-gandik ikasten dugun bezala haiek gugandik ikasten dutela"**

haiek gugandik ikasten dutela kirol pixka bat egiten dugun bitartean. Laguntasuna bermatuz, interesa dugu beraien-gandik ikasten dugun bezala

nahi diegu. Kultur transmisio polita da.

Haiek pozik ikusteak gu ere alaitzen gaitu. Ekimenean gustura parte hartzen dugunez, gehiagotan joateko proposamena egingo dugu.

Oraindik parte hartu ez dugunok gogotsu gaude!

**Udarregi Ikastolako DBH3ko ikasleak.**

## Gaztelekua: "M8a zuekin ospatu nahi dugu!"

**M**artxoaren 8a Gaztelekuan ere nabarmenduko dute. Gaztelekutik aditzera eman dutenez, "lehenengo aldia da adin desberdinetako neskei deialdia egiten diogula. Talde lana egin behar dugu eta hausnarketa lana ere, estetikan bakarrik ez geratzeko".

Gonbita luzatzen diete beraz neskei, ostegunean Gaztelekura bertaratu daitezten. "M8 zuekin ospatu nahi dugu!". Gaztelekutik helarazi diguten ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, Martxoaren 8ko ekimenak presatzen hasiak dira.



Arratsaldeko 16:30etik 18:30era hainbat ekimen burutuko dituzte Gaztelekuan.

## Ostegun arratsaldean

DBH 2 eta 3 mailetako neskekin ospatuko dute Emakumeen

Eguna, ostegun arratsaldez. Honakoa da prestatu duten plana, 16:30-18:30 artean: "mural bat margotu, pankarta bat idatzi, musika eta zapia buruan. Eta indarrarekin sentitzen bagara kalejira egingo dugu frontoira", iragarri dute.

## NOAUA!n ere, planto

NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan ere nabariko da osteguneko greba feminista. Egoitzan egunerokoan lanean diharduten emakumezko langileek sindikatuek eginiko deialdiari jarraiki, lan uztea egingo dute Martxoaren 8an, goizeko 11:00etatik aurrera.

## Belaunaldi arteko topaketa Artzabalen

Gure Pakea Jubilatuen Elkarteak antolatutako Jubilatuen Astea martxoaren 19tik 24ra ospatuko duten arren, aurrez deialdirik ere egin dute. Lehen hitzordua, ostirala honetan, hilak 9. Herritar belaunaldi ezberdinen arteko topaketa ospatuko dute Artzabalgo ekitaldi aretoan. Ziortza Gazte Elkarteak ki-deekin hain zuzen, arratsaldeko 19:00etan.

## "Sagarrondotik Sagardora" ikastaroko saioa

Hurrengo saioa, martxoaren 17an, 9:00-13:00 artean Po-txoenean. "Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txer-taketa", Josu Osarekin.

## Informazio gehiago:

Alkartasuna Kooperatibaren saiorako izen ematea eta argibide gehiago:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus/euskara/  
produktuak/ikastaroak

## Martxoaren 25ean, onddodun Tipi Tapa

Otsailean itzuli zen Hurbi-lago Elkartearen Tipi Tapa ekimena. Datorren edizioa, martxoaren 25erako iragarri dute. Oraingoan, onddo pintxo bereziak dastatzeko aukera izango da, Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirrista tabernetan. Edariarekin batera, 2 eurotan.

Amairan, zozketa: 150 euroko erosketa balea eta hogeina euroko beste bi erosketa bale irabazteko aukera izango duzue.



# Errigorarekin Erribera laguntzera

**N**afarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza laguntzeko, “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpaina berria abian du Errigorak, “Zubi bat sukalderra aldarripen”. Oliba olio eta kontserbak eskuratu ahalko ditugu oraingoan, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan, “sukaldeko armairuak urte guztirako betetzeko intentzior. Keinu txiki batekin komunitate handi eta askotariko baten parte sentitzeko zirrarez”.



Oliba olio eta kontserbak eskuratu ahalko ditugu oraingoan, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

## Olio:

- Oliba-olio birjina estra, 5 litroko bidoietan.
- Oliba-olio birjina estra ekologikoa, 5 litroko bidoietan.

## Kontserbak:

- Kontserbak: pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, baraz-

ki-menestra, potxak, tomate frijitua, kremak.

■ Noiz eskatu: martxoaren 6tik 20ra, NOAUA!ren egoitzan edo Internet bidez.

■ Noiz jaso: oliba olio apirilean, kontserbak ekainean, NOAUA!ren egoitzan. Produktuok jasotzerakoan egin behar-

ko dira ordainketak.

## Argibide gehiagorako:

elkartea@noaua.eus  
943 360 321.

## Informazio gehiago:

errigora.eus

# NOAUA! kide izateagatik saritua

Ez gara aspertuko gogorazteaz. NOAUA!ko bazkide izanda, kultur elkarteko gaietan erabakitze eskubidea izateaz gain, antolatzen diren ekitaldietarako sarreretan beharpenak edota egiten ditugun zozketetan sari ederrak irabazi ditzakezue. Esaterako, txotx bolada honetan, inguruotako sagardotegietan otorduak oparitzen gabilta azken aldian. Santueneko Aialde-Berrin 2 laguntzako afari edo bazkaria zozketatu dugu egunotan; Iñaki Manterola Olideni egokitu zaio. Zorionak! Adi; hurrengo zozketa ostiral honetan, martxoaren 9an. 2 laguntzako afaria Saizar sagardotegian.



Bi laguntzako afaria egokitu zaio Saizar sagardotegian.

Zorte on! NOAUA!kide ez bazara, etorri bulegora eta segituan tramitatuko dizugu bazkidegiz.

Bestela, deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkartea@noaua.eus helbidera.

# KzGuneko ikastaroak martxoan

Martxoan arratsaldean izango da zabalik Usurbilgo Kz-Gunea, 16:00-20:00 artean. Hemen hurrengo ikastaroen berri:

- Martxoak 15-26, 16:00-18:00: “Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako”.
- Martxoak 26-27, 18:00-20:00: “Online izapideak Osakidetzarekin”.
- Apirilak 3-12, 09:00-11:00: “Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako”.

## Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

## Gazte Akelarrea aurkezteko afaria

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatuta, martxoaren 30etik apirilaren 1era Gazte Akelarrea Oartzunen. Horren harira, martxa antolatu dute hilaren 29rako. Ernai Usurbilek berri eman duenez, izen emateko zerrendak Aitzagan dituzue. “Gogoia besterik ez da behar, muxutruk izango da eta!”. Gazte Akelarrerako bono eta sarrerak ere Aitzagan dituzue salgai.

## Ostiral honetan, Aitzagan

Gazte Akelarrea aurkezteko afaria deitu du Ernai Usurbilek ostiral honetarako (martxoak 9) Aitzagan. Afaria 5 euroren truke. Izen ematea, martxoaren 8ra arte Aitzagan.

## NOAUA!-ko

### bazkideen batzarra

Kultur elkarte honetako bazkideon urteko batzar nagusia, martxoaren 13an, datorren asteartean beraz Potxoenean. Lehen deialdia 18:00etarako finkatu dugu, bigarrena 18:30erako. Hona tx ahotan hartuko dugun gai zerrenda:

- 1.-2017ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2.-2018ko egitasmoak eta aurrerakontuak.
- 3.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4.-Galdera/ erantzunak.

## Euskaraldia

### prestatzeko bilera

Euskararen erabilera suspertzeko azaroaren 23tik abenduaren 3ra iragarri den Euskal Herri mailako ekimenetarako izena emana du Usurbilek. Dakizuenek, Euskaraldia antolatzeko taldeetara ere osatu dute. Antolaketa lanean aurrerapausoak emateko hurrengo bilera, martxoaren 14rako deitu dute, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

# Usurbil FT-ren kirol txokoak, datorren oporraldian

Udaberriko oporrak kirola eginez bizitzeko aukera eskainiko du aurten ere Usurbil F.T.-k Usurbilgo Udalaren eta Udarregi Ikastolaren laguntzarekin. Kirol txokoak goizez izango dira, 10:00-13:00 artean, apirilaren 3tik 7ra (asteartetik larunbate-ra). Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua dago eskaintza.

Kirola aitzakia gisa hartuta, herriko haurren heziketan partaide aktibo izatea du helburu nagusietakoa ekimen honek. Antolatzen ari dena Usurbil F.T. izan arren, "kirolaren onurak goraiatzeko ditugu orokorrean. Horregatik, ekintza honetako eskaintza anitza eta zabala izango da". Jolasa izango dute ardatz. "Adin hauetan, kirol eta jolas ezberdinak egitea aberasgarria da eta lehiaketak alde batera utzita, haurrek jolasean gustura pasa dezaten nahi dugu. Horretarako, hona hemen praktikatu ditugun ekintzetako batzuk: eskubaloia, jolas tradizionalak, fut-



"Izen emate orria eta ordainagiria Usurbil FT-k Haranen duen bulegoan aurkeztu beharko dira, martxoaren 13an edo 15ean, 17:30-19:00 artean".

bola, eskupilota, herri kirolak, saskibaloia...".

Kirol jardura eta jolasetarako bereziki Harane futbol zelaia baliatuko badute ere, "hainbat tokitan ibiliko gara: Kiroldegian, frontoian, herrian zehar".

## Izen ematea zabalik

Usurbil F.T.-ren ekimenean parte hartzeko izen emate orria bete eta 50 euroko ordainketa egin beharko da, antolakuntzak Kutxan duen kontu zenbaki honetan: 2095 5069 06 1071029051. Or-

dainketa egiterakoan ez ahaztu haurren izen-abizenak eta kontzeptuan, "Aste Santua" adierazteaz. Izen emate orria eta ordainagiria Usurbil F.T.-k Haranen duen bulegoan aurkeztu beharko dira, martxoaren 13an edo 15ean, 17:30-19:00 artean. Izena ematen duten gurasoei bilera egingo da martxoaren 24an 12:00etan Potxoenean. Informazio gehiago jaso edo zalantzak argitzeko futbol taldeak Haranen duen bulegora joan edo hona idatzi: futusurbil@yahoo.es

## Itzulia, Aginagatik Usurbilerantz

Azken urteotan gertatu moduan, udalerririk honetatik igaroko da 2018ko Itzulia apirilaren 2an; zehazkiago esanda, Zarautzen hasi eta amaituko den 162,1 kilometroko lehen etapa. Txirrindulariak Orio aldetik N-634 errepidetik barrena

helduko dira Aginagara 13:40 aldera, eta 13:46 aldera igaroko dira Usurbildik. Txikierritit barrena, Hernani alderako bidea hartuko dute gero. Pasaia alderaino joan ostean, Donostiarantz itzuli ostean, Usurbilgo mugatik gertu igaroko dira

berriz, bazkalostean; 15:25 aldera Mendizorrotz ingurutik hain zuzen. Aurreko astean aurkeztu zuten Itzuli eraberritua. Aurrerantzean, "Itzulia Basque Country" izena izango du. Irudia eta web orria ere estreinatu dituzte.

### Eskubaloia partidak

#### Martxoak 10, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Udarregi 5B

Udarregi 6A-Udarregi 6B

■ 10:45 Infantil neskak:

Udarregi B-Bidasoa B

■ 12:00 Infantil mutilak:

Udarregi B-Ereintza

■ 16:15 Kadete mutilak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Corazonistas

■ 18:00 Jubenil mutilak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Tolosa

### Futbol partidak

#### Martxoak 10, larunbata

■ 09:30 Alebin neskak:

Udarregi 5A-La Salle Berrozpe

■ 10:30 Infantil neskak:

Usurbil-Leintz Aramendi

#### Martxoak 11, larunbata

■ 10:00 Futbol Eskola.

■ 11:30 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Trintxerpe C.D. B

### Pilota partidak,

#### Udaberri Txapelketa

##### Usurbilgo frontoian

#### Martxoak 9 ostirala, 20:00

Eskuz binaka jubenilak, 1.maila:

Pagazpe / Ilunpe

Eskuz binaka jubenilak, 1.maila:

Pagazpe 2 / Tolosa Aurrera 4

### Gipuzkoako Birako

#### hirugarren etapa

Saturrarren-Eibar mendi irteera igandean, martxoak 11, Andatza M.K.T.-k antolatuta. Martxoaren 7a baino lehen izena eman zutenentzako biltzeko hitzordua goizeko 7:00etan finkatu dute, Oiardo Kiroldegian. Informazio gehiago eta hurrengo irteeren berri jasotzeko andatza.com atarira jo.

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK  
943 36 91 39  
[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



## ETXEBIZITZA

## Salgai

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup> terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete

bakarririk ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catallanaoc-

cidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentzietan. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun he-rritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zaindiko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garaieak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.



## Zorionak Nahia!

Zazpigarrena ere ederki ospatuko dugu! Muxu asko!



## Zorionak Ane!

8 urte beteko dituzu martxoaren 13an. Besarkadak senide eta lagunentzat!



## Zorionak Naiara!

Martxoak 8an, 10 urte!!! On-do-ondo pasa zure eguna eta milioika muxu etxekoentzat.



Zorionak Angie!! Maitagarria, zoragarria, neskatila ederra zara txapelduna! Egun bikaina igaro dezazula zure 10. urtebetzean!! Maite zaitugu!!!



## Zorionak Jon eta Iera!!!

Martxoaren 7 eta 11n zuen urtebetetzeak izan eta izango dira. Txoko-marrubizko muxu asko askoooo... Familia osoaren partez.



Zorionak Iera! Martxoaren 11n, 10 urte beteko dituzu. Ze handia egiten ari den gure etxeko izarretako bat. Txokolatzeko muxu asko askoooo... etxeko guztientzat.



Zorionak Oihan! Martxoaren 11n, 10 urte beteko dituzu. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat, amona eta familia osoaren partez.

**OHARRA:** 2018ko martxoaren 16an aterako dugu datorren astekarria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: martxoaren 12an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatze-ko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazte-leran, ingelesean eta frantse-lean goi maila eta tituladuna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638

877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelhehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketetan lan egi-

teko. Interna moduan, orduka edo gauz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketetan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

**BESTELAKOAK**

Udarregi ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninfal) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

**Telefono interesgarriak**

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 08** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 09** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 10** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 12** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 13** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 14** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Martxoak 08 - Martxoak 18**

**Osteguna 15** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 16** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 17** GLASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 18** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.



# Agenda martxo

## 09 ostirala

- **Jubilatuen Astea:** Ziortzakoekin. 19:00etan Artzabalgo ekitaldi aretoa.
- **#M8 Bertso-afaria.** 21:00etan Artzabal ja-texean.

## 10 larunbata

- **XIV. Soinurbil** 11:00/12:00 Lalala, 0-3 urte artekoentzako tailer eta kontzertuak Potxoenean.
- **XIV. Soinurbil** 17:30 "Reziklator" ikuskizuna frontoian. Bukaeran, 30 minutuko kalejira.

## 11 igandea

- **Gipuzkoako Bira** Oiardo Kiroldegitik. 07:00etan. Martxoaren 7an amaitu zen izen ematea.

## Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagolarekin bertso-afaria Artzabalen

Ostiral honetan, bertso-afaria Artzabalen. Sarrerak geratuko diren ala ez, hori beste kontu bat da. 21:00etan hasiko da eta Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagola arituko dira kantuan. Ainhoa Agirreazaldegia arituko da gai-jartzaile lanetan.

- Txartelak: aurrez salgai Artzabalen. Txartel kopurua, mugatua.
- Antolatzaileak: Bota Punttuba bertso eskola, Matrakak Talde Feminista eta Udala.



Argazkian, Amaia Agirre bertsolaria. Txartelak aurrez erosi daitezke Artzabalen bertan.

### LH5 eta 6. mailako gazteek hitzordua dute Ziortzan

LH5 eta 6. mailako gazteek aurreko hilean hasi zituzten Ziortzako saioak. "Egunak eta ordutegiak zehaztu genituen arren, ostiral honetan 19:00etatik 20:30ak bitarte egingo dugu saioa, ohiko ordutegia baino 30 minutu gehiago egongo gara elkarrekin. Beti bezala, Ziortzako lokalaren parean geratuko gara. Animatu, zuen zain izango gara".

### Martxoaren 13an, Joxan Artzeren herri omenaldia prestatzeko bilera

Usurbilgo Udalak deituta, herritar eta eragile orori zuzendutako bilera irekia deitu dute martxoaren 13rako, datorren astearterako beraz, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean.

Urtarrilean zendu zen Joxan Artzeri herri omenaldia prestatzen hastea izango du helburu datorren astearteko hitzorduak.

### Datozenak

#### Jai Batzordearen bilera

Usurbilgo festak prestatzen segitzeko hurrengo bilkura, martxoaren 20rako finkatu du Jai Batzordeak, ohi bezala, 18:00etan Potxoenean. Gogoan izan, bilera irekiak dira herritar eta eragile ororentzat. Egitaraua fintzen eta festetarako aurrekontua lantzen segiko dute. Diru kontuei lotutako ohar bat festetan ekimenean bat antolatzekotan direnentzat; aurrekontuak aurkezteko martxoaren 14ra arteko epea jarri zaie.

#### Martxoaren 23an, 'Afalosteko kontzertua' Sutegin

Atea Teatrok antolatu du ekimena. 22:00etatik aurrera Sutegin, Xabi San Sebastian, Natali Izagirre eta Ixak Arruti eta Iñaki Lizaso ikusiko ditugu oholta gainean. Sarrerak egunean bertan izango dira salgai 6 eurotan. Xehetasun gehiago astebete barru.

#### Odolaren Mintzoa, Aginagan

Aginagako Eliza Zaharrea arituko dira martxoaren 24an, gaueko 23:30ean hasita. Sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte eskuragarri.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**EROSKI** / city

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

# OSASUN GIDA 2018



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA  
**943 53 92 66**  
Puntapax 68. behea ezk. - USURBIL



PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA  
Errehabilitazioa · Kirol fisioterapia  
Fisioterapia traumatologikoa · Terapia funtzionala  
Fisioterapia neurologikoa · Osteopatia



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urrunekeo lenteetan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2. lente pareta doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN



**Öinutsik**  
p o d o l o g i a z e n t r o a  
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil

- Azterketa posturalak
- Azterketa biomekanikoak
  - Plantilak
  - Kiropodiak
- (Kailoak, azkazalak, ondoak...)
- Papilomak
- Erreflexoterapia



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika  
33/17 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatikokoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95



**Lizarralde**  
**ORTOPEDIA**

- ✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
- ✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkiak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

☑ Teknikari ortopeda kontsulta    👤 Aholkularitza    📄 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, Oñartzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA    R.P.S 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra  
EGUERTITAN ERE IREKITA  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hobereak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

100% bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea